

WORKING ZINEMA networking

OINARRIAK

Working Zinema topagune irekia da, produktoren eta ikusentzunezkoen arloko profesional eta ikasleen arteko elkarlana bultzatzen duena. Working Zinema 2015 azaroaren 16an egingo da eta zine produkzioan adituak diren aholkulariak izango dira bertan.

Networking deialdi honetan izena eman duten proiektuak aholkulari adituak izango dituzte euren zalantzak argitu ahal izateko eta, gainera, horietako bat 6.000€, aholkularitza profesionala eta ekoizpen baliabide teknikoetan datzan saria jasoko du proiektua (dokumentala, webseriea, film laburra edo luzea) burutzeko.

Ekimen honen antolatzailea Euskal Produktoreen Elkarte (EPE/APV) da. ElkartEak izendatutako aditu talde batek erabakio du Working Zinema networking deialdi honetako proiektu irabazlea.

PARTE-HARTZEA

Ekimen honetan euskal ekoizpena duten dokumental, webserie, film labur, edo luzeen proiektuek parte hartu dezakete.

IZENA EMATEA

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da www.epe-apv.com webgunean dagoen formularioa betetzea eta bertan eskatzen den dokumentazio gehigarria hurrengo helbidera bidaltzea: info@epe-apv.com . Proiektu hauek azaroaren 16an egingo den networking saioan parte hartuko dute.

Bidali behar den dokumentazioa (* batekin markatutakoak ezinbestekoak dira):

- Proiektua azaltzen duen memoria*.
- Gidoiaren sinopsia.*
- Gidoia.*
- Aurrekontua.
- Produkzio plana.
- Finantzazio plana.
- Fitxa tekniko eta artistikoa.
- Zuzendariaren kurrikuluma.*

BALDINTZAK

- Zuzendari bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake.
- Ez da onartuko dagoeneko finantzazio instituzionala duen proiekturik.
- Ez da onartuko lan bukatuak.
- Proposamenak orijinalak izan behar dute.

EPEA

Proiektuak aurkezteko epea urriaren 16tik azaroaren 12ra (barne) egongo da zabalik.

AUKERAKETA

EPE/APV izendatutako adituen talde batek erabakiko du zein den proiektu irabazlea, Working Zinema ekimenean parte hartzen dutenetatik. Erabakia da EPE/APVren webgunean eta sare sozialetan iragarriko Working Zinema egin eta 20 egunetara gehien jota.

SARIA

Proiektu irabazleak 6.000€, aholkularitza profesionala eta ekoizpen baliabide teknikoak eskuratuko ditu ikus-entzunezko proiektua (dokumentala, webseriea, film laburra edo luzea) aurrera ateratzeko.